



Irailaren 8an Gernika pasealekuko frontoian egingo da eta bazkaltzera gerturatzen diren guztien artean dastatu eta puntuatuko dira txapelketara aurkeztutako sagardoak

Bazkarirako txartelak Basakana, Plazape, Batzoki, Xerbera eta Antzizar tabernetan daude salgai 26 eurotan eta bazkaria bertako produktuetan oinarritutako menuaz osatuko da

Euskal Herriko Sagardo Txapelketa Herrikoia IV. edizioko lehen final-aurrea Beasainen egingo da irailaren 8an. Gernika pasealekuan egingo den bazkari herrikoian dastatu eta puntuak banatuko dituzte bazkaltzera joango direnak. Epaille izan nahi duten herritarrek bazkari txartelak hartu beharko dituzte aldeztu aurretik. Beasainen, Basakana, Plazape, Batzokia, Xerbera eta Antzizar tabernetan izango dira salgai 26 eurotan eta epaille edonor izan ahalko da.

Aurten, IV. Edizioa beteko du Txapelketa honek eta Euskal Herriko 18 herritako 41 sagardotegik hartuko dute parte.

Euskal Herriko IV. Sagardo Txapelketa Herrikoia

Euskal Herriko Sagardo Txapelketa Herrikoia laugarren urtez egingo da aurten eta 4 finalaurreko eta finala izango ditu, horietako lehena Beasainen. Izena ematen duten Euskal Herriko Sagardotegietako sagardoak bazkaltzera esertzen diren guztien artean dastatu eta puntuatuko dira. Epaile izan nahi duten herritarrek afari txartelak hartu beharko dituzte aldeztu aurretik (finalaurrekoak 26€ eta finala 32€). Epaile edonor izan ahalko da.

Beste hiru finalaurrekoak, Goizuetan, Oñatin eta Urnietan izango dira; eta finala Usurbilen. Mahaikide-epaileek ez dute jakingo zein sagardotegitako sagardoa ari diren dastatzen eta bukaeran jakingo dira irabazleak (lote zenbakia) zeintzuk diren, bai finalaurrekoetan eta baita finalean ere. Aurten Euskal Herriko 18 herritako 41 sagardotegik hartuko dute parte Euskal Herriko IV. Sagardo Txapelketa Herrikoian (zerrenda osoa behean).

Edonor izan daiteke epaile

Bazkaltzera eseri eta mahaira ateratzen duten sagardoari bakoitzaren gustuen arabera 5-10 tarteko puntuazioa ematea, ez beste! Beraz, sagardoak dastatzea eta ongi jatea gustuko baduzu, hau da zure txapelketa!

Ohitura zaharrak gure eginez...

Aurten laugarren urtea du Euskal Herriko Sagardo Txapelketa Herrikoia, Gipuzkoako Sagardogileen Elkartek lehengo ohitura bati heldu zion orain lau urte ilusio handiz. Historikoki horrelako txapelketak egin izan dira, 1967tik aurrera zenbait txapelketa herrikoia antolatu baitzituen orduko sagardogileen elkarteak, herri desberdinekin elkarlanean, eta sare hori berreskuratzea da asmoa. 2015eko txapelketa lehen harria izan zen, eta ordutik sistema hobetuz eta herri zein herriar desberdinak sagardoaren inguruan elkartuz lanean dihardugu.

HERRIA	EGUNA	KOKAPENA
BEASAIN	Irailak 8	Gernika pasealekuko Frontoi estalian
	LARUNBATA	
	14:00	

Otordua

Bai finalaurrekoetako eta bai finaleko afaria bertako produktuetan

oinarrituko da, Gipuzkoako Sagadogileen Elkartek, Basatxerrik eta Lurlan Elkarrekin duten elkarlanerako proiektua oinarri hartuta. Sagardoarekin egoki ezkontzen diren plater desberdinak dastatu ahal izango ditu jendeak.

BEASAINGO FINALAURREKOA**FINALA (USURBIL)****- 26 € -****- 32 € -****Basatxerri lontxeatua****Basatxerri lontxeatua**

Basatxerri urdaiazpikoa eta txorizkoa.

Basatxerri urdaiazpikoa eta

Entsalada**Entsalada**

letxuga, tomatea, tipulina, oilaskoa eta arrautzaletxuga, tomatea, tipulina, egosia

eta arrautza egosia

Ajoarrieroa**Ajoarrieroa**

Bakailao ajoarrieroa tenperatura baxuan egositako arrautzarekin

Bakailao ajoarrieroa tenperatura egositako arrautzarekin

Xolomoburua**Txuleta**

Basatxerri xolomoburu errea pikillo piperrekin

Txuleta parrillan erreta

Postrea**Postrea**

Idiazabal gazta sagar dultzearekin

Idiazabal gazta sagar dultzearekin

Puntuazio sistema

Jendea bazkaltzen hasi orduko hasiko dira mahaira sagardoa ateratzen eta jendeak lote bakoitza puntuatu behar izango du 5-10 tartean, momentuan iruditzen zaionaren arabera. Ez da jakingo zein sagardotegietako sagardoa dastatzen ari diren mahaikideak. Finalaurreko bakoitzeko lehen bi puntuazio altuenak dituzten sagardotegiak automatikoki pasako dira finalera, eta gainontzeko sagardoak puntuazioaren arabera, hurrenez hurren. Finalaren ondoren bakarrik jakingo da finalistak zein izan diren eta zein puntuazio lortu dituzten.

Sagardotegi parte hartzaileak

Edizio honetan Euskal Herriko 18 herritako 41 sagardotegik parte hartuko dute.

	SAGARDOTEGIAK	HERRIA
1	ABURUZA	Aduna
2	AGINAGA	Usurbil
3	AKARREGI	Hernani
4	ALBERRO	Hernani
5	ALORRENEA	Astigarraga
6	AÑOTA	Azpeitia
7	ARAETA	Zubieta
8	ASTARBE	Astigarraga
9	ASTIAZARAN	Zubieta
10	BELTZENIA	Urruña
11	BEREZIARTUA	Astigarraga
12	CALONGE	Igeldo
13	EGUZKITZA	Tolosa
14	ELUTXETA	Urnieta
15	ETXEBERRIA	Astigarraga
16	EULA	Urnieta
17	GAZTAÑAGA	Andoain
18	GOIKOETXEA	Lizartza
19	IPARRAGIRRE	Hernani
20	IRIGOIEN-HERRERO	Astigarraga
21	ITXAS BURU	Hernani
22	IZETA	Aia
23	LARRARTE	Astigarraga
24	LARRE GAIN	Hernani
25	LIZEAGA	Astigarraga
26	OIANUME	Urnieta
27	OIARBIDE	Astigarraga
28	OIHARTE	Zerain
29	OLA	Irun
30	OLAGI	Altzaga
31	ORDO-ZELAI	Oiartzun
32	OTSUA-ENEA	Hernani
33	PETRITEGI	Astigarraga
34	REZOLA	Astigarraga
35	RUFINO	Hernani
36	SATXOTA	Aia
37	SETIEN	Urnieta
38	TXIMISTA	Ordizia
39	URDAIRA	Usurbil
40	UXARTE	Zornotza
41	ZABALA	Aduna